

Josemari Velez de Mendizabal

## Tamayo, Fromm eta espainiar selekzioa

**E**

z naiz ni Alfredo Tamayo jesuitaren balio intelektuala zalantzan jartzen duena izango. ETAk lehen heriotza eragin aurretik ezagutu nuen, hots duela berrogei urte baino gehiago. Irakasle izan nuen ESTEn, bere klaseetara gustura joaten nintzen, bizitzara ateratzen ari zen hamazortzi urteko mukitsua nintzen harentzat sekulako berrikuntza baitzen Tamayo gaztearen diskurtso teorikoa. Hitz egiten zigun Camus, Garaudy, Sagan, Marcuse eta pentsalari mordo batez. Oraindik nire bibliotekan ditut berarekin jorratutako zenbait testu liburu –Abel Jeannièren *Antropologia Sexual* barne– oharrez josita. Gogoratzen dut ere, bere estilo pertsonalean, kristau liberalismoaren bikaintasunez aritzen zitzaigula, pairatzen ari ginen frankismoaren amaierako zurrumbilo itxaropentsu hartan bizitza modelo aske gisa aurkezten zigula.

*Siempre de vuestro lado* liburu berri bat aurkeztu digu orain Tamayok, eta irakurtzeko asmorik ez dudan arren, egileak berak zerbitzatu dizkit oraingo ekarpenaren nondik norakoak, prentsan eskainitako elkarrizketan. “Bigarren frankismo batean bizi banintz bezala sentitzen naiz” dio jesuita donostiarrak, eta bere adierazpenek ez nautela harritu aitortu behar dut, azken urteotako idazkietan ageri duen irizpide lerroa kontuan izanda. Bitxia egin zait, dena den, euskal nazionalismoa “talde narzisista kaltegarria da” Tamayoren aitortpena, eta definizio hori Erich Frommen ideietatik atera duela dio. Eta horrela da, baina Tamayok ahaztu egin bide du Frommek “maitasunak narzisismorik eza adierazten duelako, umiltasuna, objektibitatea eta arrazoia behar ditu” ere dioela. Eta horretan euskal nazionalismoa garaitua gertatzen da, inguruko beste nazionalismoekin alderatuta. Horietaz, nik dakidanez, Tamayok ez du ezertxo ere aipatzen. Labainkada bat iruditu zait, bestalde, Ibarretxeri errealtatearen zentzurik eza leporatzea, “iluminatu”-tzat hartzen duelarik. Ibarretxeren defentsa egitea ez dagokidalarik, bere zintzotasun politikoa



DANI BLANCO

egotzi ahal izango zaio, nonbait, baina inondik ere Frommen hiru baldintzetatik, umiltasun, objektibitate eta arrazoirik eza. Antzinako beste “iluminatu” bati –Jesukristori– gertatzen ez zaiona, objektibitatea eta arrazoia, bederen, demonstratu gabe utzi baitzituen. Eta kristau kontzientziatik idazten ari naizela azpimarratzen dut.

Alfredo, gauzatxo bat kontatuko dizut: poztu naiz espainiar futbol selekzioak Europako txapelketa irabaztearekin. Badakizu zergatik? Finala galdu izan balu ez genukeen izango egungo espainiar nazionalismoa noraino hel daitekeen frogatzeko aukera. Historikoki zer egin duen eta indarraren arrazoia nola erabili duen hamaika aldiz erakutsi digun arren, benetan irrikan nengoen beste erakuspen baten zain. Futbolak ekarri digu abagunea eta orain garbi baino garbiago daukat zer espero dezakegun

espainiar nazionalismoa errotik bizi duen gizartetik: “Divinos”. “Europa a los pies de España”. “Nuestro corazón es de la roja”. “La multitud enmudece llorosa con las notas del himno nacional”. Gisa horretako titularrek ez didate zalantzarako zirrikiturik uzten: gaizki daukagu euskal nazionalistok. Izan ere, Frommen hiru kontzeptu horietatik, batean bederen irrist egiten baitute espainiarrek, umiltasunean, hain justu, besteak bete egiten dituzten arren: objektibitatea (txapel-dunak dira) eta arrazoia (euskaldunak baino gehiago eta

boteretsuagoak ditugu).

Beraz, nire txokotxo honetatik eta ez didazula irakurriko suposatzen dudan arren, esan nahi dizut nik ere sarritan sentitzen dudala frankismo berri bat bizitzen ari garela. Bi subjekturen arteko harremanetan aurrera jo ahal izateko, ez da oinarrizko baldintzetan Frommen maitasuneraino heldu behar. Nahikoa dugu borondatearekin (umiltasunetik gertu dagoena). Eta kalitate hori ez dut europar futbol txapeldunen zalegoan antzematen. Iribar eta konpainiak 1964an txapelketa irabazi zutenean bezalaxe gaude. Ala ez? ■

Alfredo, gauzatxo bat kontatuko dizut:  
poztu naiz espainiar futbol selekzioak  
Europako txapelketa irabaztearekin.  
Badakizu zergatik? Finala galdu izan  
balu ez genukeen izango egungo  
espainiar nazionalismoa noraino  
hel daitekeen frogatzeko aukera